

## REMIGIO MENDIBURU ARTISTA SORTZAILEA

Artista bakoitzak bere joerak eta kezkek agertzen ditu eta horien artean Remigio Mendiburu bereziki sorkuntzarako kezka nabaria zuen. Hortarako bere lanak ikus eta aztertu baizik ez dugu. Lehenik, gaztetxo zelarik, paisaiak pintatzeari eman zion. Gero buztinez, burniz, zurezko langa-kapiroak eta abar, beste zenbait materialez baliatuz ekin zion sorkuntza bideari heltzeko.

“Gaur” taldea osatzean Donostian 1966an egin zuten *erakusketa* irriburuzko artikulu bat argitaratu nuen Donostiako Hoja del Lunes hartan eta geroztik arduratu naiz zenbait aldiz bere lanak aipatuz.

Berak zioenez, basoan adi soeginaz jarriz, berekiko ikerketaz egiten zituen zurezko aurkikuntzak. Hortarako forma bereziak zituen gogoko eta Oteitzaren gomendioak haintzat harturik abiatu zen arte abanguardietara. Ondorean bere joera bereziak azaldu zituen. Artegitza, nolana ere, bere nortasunetik begira, euskal kulturari loturik eraman zuen.

Adibidez, har dezagun 1989an Donostiako San Telmo Museoan omenaldiz egin zitzaion Remigio Mendiburu zeritzan katalogoa begiratu baizik ez dugu, bertan argazkiz argitaratu

ziotenekoak ikusi besterik ez dugu bere kezka nagusian sorkuntza eredugarria zuela jakiteko.

Bere dibujoen irudiak eta margogintzatik hasi eta aski dugu 1958-1959garren urteetan eskulturaz egin zituen irudietatik hasiz eta ondoko urteetan jarraitu zuen bidea nondik nora eraman zuen jakiteko:




*Remigio Mendiburu  
zenak eginiko arte  
lanetako bat.*

Txalaparta, Irrintzi, Aizkolari direnetatik hasi eta buztinezko Talua, gero galdan urtzagintzaratuz eman zitunak begiratu ondorean zurez eta metalez eman zituen hainbat lan aztertuz burutu zuen lanez ohartzeko.

Remigio Mendiburu, Natura zalea zenez, edonon aurkitzen zuen oinarrizko gaia berekiko sorkuntzetara eramateko.

Langintza bera oso berezia zuen, hortarako materialea basoetan begiz hautatutakoez baliatuz eta Euskal Herriko ohitura zaharretan oinarrituriko lotura emanaz jardungo zuen. Zura zatiak elkarturiko lotura egokituz har genezake **Murru** deritzan eskultura.

Adibide gisa, besteak beste, lan horietako batzuk hautatuko nituzke: Hondarribiko Udaletxean eta Puntalen puntan dagoen **Txorria**, Alde Zaharrean dagoen brontzezko



*Mendibururen lanek nazioarteko ezagupenak jaso dituzte.*

Taloa, eta Jaizkibel mendian **Herrien Bata-sunari** eskaini zion burniz eta harriz osatu zuen monumentu hura. Gasteizko museoan gordetzen diren **Harri bihur** eta **Zugar**, Eusko Legebiltzarrak duen **Argi-kabia**, Donostiako Askatasun Etorbideko etxe hartan dagoen **Herri txistu hotsa**, **M. Lekuona** zenaren omenez Eusko Ikaskuntzak duena, Bilbon dagoen **Hostoa** eta abar.

Baina, bere lana ez zen mugatzen basoan so eginaz hautatzen zituen material soilez baliatzeaz, ez. Zeren, eskulangintzan ordea

1979an **Xalbador bertsolariaren** omenez eskaini zigan hura eta aldi berean **Atari** (1983) zeritzanak ikusi baizik ez ditugu langintza horren eredugarri. Beraz, Mendiburu zena, sorkuntzarako artista eredugarria genuen.

Remijio Mendiburuk bere inguruan zituen artista guziak goraiatu zituzten bere sorkuntzarako lanak.

*JUAN SAN MARTIN*

*Susperregi*

**ARTE - GALERIA**

San Pedro, 1 20280 Hondarribia  
Tel. 943 64 25 56 / 943 64 70 99 / 647 559 691  
Faxa: 943 64 71 16  
e-mail: garailan@jet.es  
www.susperregi.net  
susperregiarte@terra.es

*Hawaii*

**Hawaiien dena da berezia**

San Pedro kalea 12 • 943 64 20 76  
Santiago kalea 2/g • Zuloaga 2/g • 943 64 17 58  
Rebellin 3 • 943 64 48 00

**20280 Hondarribia**